

bilbao **museoa**

BBKateak **Guezala –** **Nagel**

Arte Ederren Bilboko Museoa
Museo de Bellas Artes de Bilbao

bbk 

Guezala – Nagel

14. aretoa

Eraikin zaharra


Lehen solairua

Bilbo chic

Bertsio zinetikoan, mihise handian, eta pop-ean, eta eskultura-instalazioan, Guezalak eta Nagelek itxura sofistikatua duten emakumeak erretratatzeko dituzte arintasun zinematografikoz. Horietako bat festa batean sartzen da Bilboko Carlton hotelean, 1920ko hamarkadaren amaieran; beste bi, berriz, mende erdi geroago, gaza beltz batek inguratuta, inguru mundutarrago batean, *burlesque*-tik gertukoagoan, daudela dirudi.

1

Eraikin zaharra Lehen solairua



Antonio de Guezala

1889-1956

Bordelen eta Manchesterren enpresa ikasketak egin ostean, 1907an Bilboko Arte eta Lanbide Eskolan ikasi zuen. Han Antonio Arambururen marrazki eskoletara joan zen, non José Arrue eta Anselmo Guinea ezagutu zituen. Pintura, grabatua, kartelgintza eta diseinua jorratu zituen. Euskal Artisten Elkarteko bazkide fundatzailea izan zen, eta Gerra Zibilaren hasieran Eusko Jaurlaritzarekin elkarlanean aritu zen, ondare artistikoa zaintzen. 1937an, erbestera jo zuen, eta Europan zehar ibili zen, *Eresoinka* dantza eta musika taldeko eszenografiaren arduradun lanetan. Modernitaterako zeukan grinak bultzatuta, hainbat mugimendu ezagutu zituen, hala nola Les nabis, Vienako Secession edo kubismoa, eta azken horren eraginpean estetika oso berezia garatu zuen.



Ate birakaria edo Begoña de la Sotaren erretratua
1927. Olioa mihisean

Lan honen izenburuan aipatzen dena Bilboko Carlton Hoteleko atea da, zeinaren orrien artean Begoña de la Sota sumatzen den, 1927an Adolfo Guiarden omenez ospatutako bi jaietako batera sartzen. Barrutik ikusita, abstrakzio moduan ageri da pertsonaia, barnealdea eta kanpoaldea nahastatuz atea eragiten dituen ikus-alde zinetikoen artean, nahasian. Irudian, abangoardiei eta artistak bereganatutako eragin guztiei buruzko hainbat erreferentzia daude laburbilduta. Zerbaitegatik hartu izan da haren obra gorentzat.

Bizkaiko Foru Aldundiaren gordailua, BBKren ematearen bitartez, 2003an

Andrés Nagel

1947

Nafarroako Unibertsitatean Arkitektura ikasketak egin zituen arren, laster arte plastikoen aldeko aukera egin zuen. 70eko hamarkadaz geroztik, erakusketa-jarduera biziak mundu osoan barrena bidaiatzera eraman zuen. Eskultura landu du gehienbat, baina baita pintura eta grabatua ere. Garaikide dituen gehienak ez bezala, inoiz ez da abstrakzioarekin identifikatu, baizik eta poparen nahiz surrealismoaren erreferentziak baliatu dituen figurazio postmodernoarekin. Artelanetan erabilgai ditu material sotilak eta molderik gabe kolore ugariz landutako poliesterra daukan beira-zuntza. Inguruan duen gizartearen ikuspegi kritikoa eta ironia ageri dira haren unibertso plastiko berezian.

© Andres Nagel, VEGAP, Bilbao, 2022



Sonsoles

1980. Akuafortea Rives paperean

Nagelek produkzio grafiko zabala egin du, batez ere akuafortea eta urtinta erabilia, baina baita litografia ere. Askotan, estanpak pinturarekin edo spray-kolorearekin margotzen ditu. Adibide honetan, protagonista 80ko hamarkadako modaren arabera jantzita dago, sorbaldakoak dituen jakaz osatutako trajearekin, eta, sandalia egokitzeko, makurtzean nolabait jarrera sexya hartzera behartzen duen tutu-gonarekin.

Artistaren dohaintza 1984an

© Andres Nagel, VEGAP, Bilbao, 2022




Fuensanta

1980. Akuafortea Rives paperean

Fuensanta aldakak leun kulunkatuz dabil, axolagabetasun sofistikatuak jarri zeharka begiratu. Zangoak eta oinak bikoiztuta, azterlan akademiko gisa, takoidun sandaliak nabarmendu ditu, konnotazio fetixistak dauzkan objektua. Bai grabatu hau eta bai honekin batera bikotea osatzen duen *Sonsoles* Andrés Nagelen lan grafiko oparoaren adibideak dira, eta, artistaren gainerako lana bezala, ironia zoli batez zipriztinduta dago.

Artistaren dohaintza 1984an



80003

1974. Olioa poliester eta beira-zuntzean

Nagelek bere lanetan jasotako errealitatea kirtenkeriatik hurbil dagoen tonu satirikoarekin iragazten du. Hemen aurkeztu den pasadizoan, bi emakumezko adiskideek Bilboko kaleetan topo egin dute. Arropa estuak eta takoidun zapatak daramatzate jantzita, eta, itxuragabeak izan arren, lirainak eta estilodunak dira. Aurpegiak mingainetara mugatu dira ia erabat, eta eskuek maitasun itxuratiz ukitu dute elkar. Eszena-oihal modura gasa beltzeko atzealdeak azpimarratu egin du gizartearen konbentzios blai dagoen eszena honen antzerki-izaera.

1982an eskuratua

BBKateak

BBKateak erakusketa-proposamenaren helburua da bildumari narratiba berriak ematea, museoaren handitze proiektuko lanek iraun bitartean. Aldizka eguneratuko den aurkezpen-programa dinamiko baten bitartez, eraikin zaharreko areto bakoitzak bi artistaren eta haien lanen espero gabeko aurrez aurreko bat erakutsiko digute; denboran edo/eta jatorri kultural edo geografikoan urrunekoak izan daitezkeen izenak izango dira; horrela, arteari buruzko ikuspegi eraldatzailea eta eraikitzen ari dena iradokiko da. Modu horretan, museoaren metamorfosia islatuko da etengabe aldatzen ari den bilduma batean.

Programa *Hamahiru Centaurusera* lanak abiaraziko du; Sergio Prego artistaren eskultura-proiektua da, aretoak hustetik sortua.